

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

#### **Foru Gobernu Kontseiluaren 2/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 18koa Onestea premiazko zerga neurriak COVID-19ren inpaktu ekonomikoari erantzuteko**

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) pasa den urtarrilean adierazi zuen COVID-19 koronabirusa dela-eta sortutako egoera nazioarteko garrantzia duen osasun publikoko larrialdia zela. COVID-19aren bilakaeraren ondorioz sortu den egoerak berekin ekarri du osasun arloko agintarietako aparteko euste neurriak hartu beharra. Azkenik, martxoaren 11n, OMEk pandemiatzat jo zuen gaixotasuna.

Europar Batasunean, estatuburu eta gobernuburuak ezohiko Kontseilu Europarra egin zuten martxoaren 10ean, estatu kideetako egoera aztertzeke eta berresteko Europaren ikuspegi bateratu baten beharra zegoela, bai eta behar diren neurriak hartzeke eta azkar jarduteko ere. Horren harira, Kontseilu Europarrak lau lehentasun identifikatu zituen:

Lehenengoa, birusaren hedapena mugatzea; estatu kideek berriz adierazi zuten lehentasunik behinena zela herritarren osasuna ziurtatzea, eta zientzialarien eta osasun arloko agintarien gomendioetan oinarritzea jarduketak, neurri proportzionatuak ezarrita.

Bigarrena, medikuntzako ekipamenduaren horniketa. Erabaki zen Batzordeari ardura ematea beharrezko aztertzeke eta ekimenak abian jartzeko hornidura faltarik egon ez dadin, industria-rekin lankidetzan eta baterako kontratazio publikoen bidez.

Hirugarrena, ikerketa sustatzea, bereziki txertoa lortzeko.

Eta, azkenik, laugarrena, ondorio sozioekonomikoei aurre egitea. Europar Batasunak eta bertako estatu kideek azpimarratu zuten prest zeudela behar ziren tresna guztiez baliatzeko. Bereziki, likidezian izan dezakeen eraginean arreta jarritz, eta ETEak, eraginpeko sektore espezi-fikoak eta langileak babestuz.

Azaldukoagatik, zerga premiazko araugintzako dekretu honen xedea da neurriak hartzea erantzuteko agintari eskudunek hartutako neurrien eraginpean dauden zergadunak jasaten ari diren eragin ekonomiko negatiboari, eta aurrea hartzea zergadunek eragin ekonomiko negatibo handiagorik jasan ez dezaten; lortu nahi dena da arintzea osasun larrialdiko egoerak ekonomiko sektore ahulenetan izan dezakeen eragina, hau da, enpresa txikietan eta autonomoetan, eta haien likidezia bermatzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu honetan zenbait zerga neurri jaso dira, aldi baterakoak, zeinak berehala hartu behar baitira aipatutako ezinbesteko kausagatik, zergadunen eskubideak bermatu eta babesteko, eta behar den segurtasun juridikoa emateko. Zehazki, honako hauei loturiko neurriak ezarri dira: zerga prozeduretan epeen hasiera etetea edo luzatzea, likidazioen eta zenbait autolikidazioen aitortzea eta diru sarrerak egiteko epea etetea, zerga prozeduren izapideak etetea, zerga zorren ezohiko geroratzea arautzea, indarreko geroratzeen tratamendua eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ordainketa zatikatu batzuk kentzea.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horren ondorioz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, 6/2005 Foru Arauak (otsailaren 28koa, Arabako zergei buruzko orokorra) 8. artikuluan eta 52/1992 Foru Arauak (abenduaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzkoa) esleitzen dizkidaten eskumenak erabiliz, presako arrazoiak direla-eta, hau

## XEDATZEN DUT

**1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua**

Zerga premiazko araugintzako dekretu honetan ezarritako neurri fiskalen xedea da arintzea COVID-19 birusak eragindako pandemiaren ondorioak, hain zuzen eragozten baitute bai Arabako Foru Ogasunaren ohiko funtzionamendua bai Arabako Lurralde Historikoko zerga sistemari atxikitako zergadunek zerga betebeharrak betetzea.

**2. artikulua. Zerga prozeduretan epeen hasiera etetea edo luzatzea**

Bat. Zerga prozeduren hasiera, baldin eta ofizioz egin beharrekoa bada indarreko zerga araudiaren arabera, eten egingo da 2020ko ekainaren 1era arte, 2020ko martxoaren 14tik aurrera hastekoak liratekeen kasuetan.

Bi. Aurreko paragrafoan adierazitakoak ez die inolaz ere eragingo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren 2019ko ekitaldiari dagokion kanpainari, zeina horretarako ematen diren arau espezifikoek arautuko baitute, eta Foru Aldundiari baimena ematen zaio zerga horren autolikidazioak aurkezteari eta ordaintzeko epeari dagozkien bidezko xedapenak onesteko.

Hiru. Era berean, administrazio errekurtsuak eta erreklamazioak aurkezteko epeen edo zerga arloan zergapekoak eskatuta hasi beharreko beste edozein jarduketaren hasiera 2020ko ekainaren 1era arte luzatuko da.

**3. artikulua. Likidazioen eta zenbait autolikidazioen aitortpena eta diru sarrerak egiteko epea etetea**

Bat. Otsailari dagozkion hileko autolikidazioak aurkezteko eta dagozkien diru sarrerak egiteko borondatezko epea 12 egun natural luzatuko da Covid-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak indarra galtzen duenetik aurrera; edo, bestela, egoera horren luzapenek indarra galtzen dutenetik aurrera.

Bi. Martxoari dagozkion hileko autolikidazioak aurkezteko eta dagozkien diru sarrerak egiteko borondatezko epea 25 egun natural luzatuko da alarma egoera edo, bestela, egoera horren luzapenak amaitzen direnetik aurrera.

Hiru. 2020ko lehen hiruhilekoari dagozkion hiruhileko autolikidazioak aurkezteko eta ordaintzeko borondatezko epea 2020ko ekainaren 1era arte luzatuko da.

Lau. 2020ko ekainaren 1era arte luzatuko da 2020ko martxoaren 14tik aurrera mugaeguneratzen diren likidazioen diru sarrerak egiteko epea.

**4. artikulua. Zerga prozeduren izapideak etetea**

Bat. 2020ko martxoaren 14a baino lehen hasitako zerga prozeduren geldialdiak etenaldi justifikatutzat joko dira zergapekoarentzat, edo zerga administrazioari egozgarri ez zaizkion arrazoiengatik prozedurako gerorapentzat, eta, ondorioz, ez dira kontuan hartuko ebazteko epearen zenbaketan, alarma egoera eta, halakorik balego, hartzen diren luzapenak indarrean dauden aldian zehar.

Bi. 2020ko martxoaren 14tik aurrera aurkezteko epea amaitzen zaien informazio aitortpenak 2020ko ekainaren 1era arte aurkeztu ahalko dira, epe hori data hori baino lehen amaitzen de-nean.

Hiru. Era berean, zerga arloan garrantzitsuak diren argibideak, aurrekariak edo agiriak aurkezteko Administrazioak egindako banan-banako errekerimenduei erantzuteko epearen kontaketa eten egingo da 2020ko martxoaren 14tik 2020ko ekainaren 1era bitartean, epe hori aipatutako bi egunen artean amaitzen bada.

Lau. Ez da berandutze interesik sortuko egiaztapeneko eta ikerketako prozeduretan, ez eta egiaztapen murriztukoetan ere, 2020ko martxoaren 14tik 2020ko ekainaren 1era bitartean.

**5. artikulua. Zerga zorren ezohiko geroratzea**

Bat. Jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoen eta mikroenpresen eta enpresa txikien zerga zorrak, Sozietateen gaineko zergari buruzko Foru Arauaren 13. artikuluan zehaztutakoak, 2020ko martxoaren 14tik 2020ko ekainaren 1era bitarteko borondatezko epean aurkeztu eta ordaintzeko epea duten autolikidazioen ondoriozkoak, zatikatu ahal izango dira, bermerik eman gabe eta berandutze interesak sortu gabe, artikulua honetan xedatutakoarekin bat etorritik.

Halaber, zatikatu ahalko dira baldintza berberetan jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoen eta mikroenpresen eta enpresa txikien zerga zorrak, Sozietateen gaineko zergari buruzko Foru Arauaren 13. artikuluan zehaztutakoak eta 2020ko martxoaren 14tik 2020ko ekainaren 1era bitarteko ordaintzeko borondatezko epea izanik zerga administrazioak egindako likidazioen ondoriozkoak direnak.

Bi. Artikulu honetan aipatzen diren zergapekoek 2020ko ekainaren 1etik aurrera ordaindu ahal izango dute zerga zorra, zenbateko bereko hileko 6 kuotaren zatikapena eskatuz. Zatikapen horren lehenengo epea 2020ko uztailen amaizura da.

Hiru. Ezohiko geroratze hori aplikatu ahalko zaie jokoaren gaineko zergetatik eratorritako zerga zorrei.

Lau. Ezohiko geroratze horren eskaera Arabako Foru Ogasunean egingo da, horretarako ezarritako diren mekanismoen bitartez, autolikidazioa aurkezten den momentuan.

Zerga administrazioak egindako likidazioen ondoriozko zerga zorren kasuan, eskaera 2020ko ekainaren 1a baino lehen egingo da, aipatutako mekanismoen bidez.

Bost. Arabako Lurralde Historikoko Dirubilletaren Arautegi Orokorrean xedatutakoa ez zaie inolaz ere aplikatuko artikulua honetan araututako ezohiko geroratzeei.

**6. artikulua. Indarreko geroratzeak**

Hilabete atzeratuko da emanda dauden geroratze eta zatikatzeen apirilera epemugako ordainketa eta, ondorioz, zatikatzeen kasuan, hilabete atzeratuko dira gainerako epemugak, eta ez da berandutze interesik sortuko artikulua honetan ezarritako hilabeteko geroratzearen ondorioz.

**7. artikulua. Ordainketa zatikatuak**

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak, jarduera ekonomikoak gauzatzen dituztenak, ez dira behartuta egongo Arabako Foru Ogasunean honako hauei dagozkien ordainketa zatikatuak egitera edo, kasuan kasu, autolikidatu eta ordaintzera: 2020ko lehen eta bigarren hiruhilekoak, 2020ko lehen seihilekoa eta 2020ko lehen, bigarren eta hirugarren bihilekoak.

**XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA**

Arabako Zergen Foru Arau Orokorrean 92.ter artikuluan aipatutako zerrenda 2020ko azken hiruhilekoan argitaratuko da.

**AZKEN XEDAPENAK**

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean, eta 2020ko martxoaren 14tik aurrera ditu ondorioak.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaie zerga premiazko araugintzako dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Batzar Nagusiei jakinaraziko zaie, indarreko araudiaren arabera izapidetu dadin.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 18a

*Diputatu nagusia*

*RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE*

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*

*ITZIAR GONZALO DE ZUAZO*

*Ogasun zuzendaria*

*MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA*